

## **Geroan bizi, ondarearekin lan egin**

Identitatea, irudikapena, politika performatiboa eta komisariatze praktika Emakumeen Hirian

Katja Kobolt eta Dunja Kukovec elkarlanean

Jendeak aditzen duenean Ljubljnanako Emakumeen Hiriaren berri, Eslovenian basea duen batzorde sobietar pseudo-feminista bat irudikatzen du. Alabaina, generoak markatutako gertakari horrek ez du zerikusirik Sobietar Batasun ohiarekin ez pseudo-feminismoarekin: Emakumeen Hiria feminismoaren adibide bat da, ekintza politiko zuzen gisa ulertua.

Emakumeen Hiria diziplinak zeharkatzen dituen nazioarteko jaialdi bat da, Kultura Alorrean Emakumeak Sustatzeko Elkarteak antolatua. Ekoitzi eta eskatu egiten ditu ekintza zuzen askotarikoak bere gertakarietan: performanceak, artelanak, filmen proiektzioak, mahai-inguruak, kontzertuak, argitalpenak, irratia, internet plataforma bat eta sare-diskoetxe bat, adibidez. Programaren bereizgarrien artean daude denboran oinarritutako artea, zuzeneko diskurtsoa eta arte adierazpide, eszenatoki eta entzulerien aniztasuna.

Jaialdiak genero desberdintasunean oinarritutako diskriminazio positiboa bultzatzen du. Baina antolatzaileek eta artistek oraindik ere zenbait galdera erantzun behar dituzte, hala nola "Zergatik bultzatu behar da emakumeen sormenaren irudikapen eta artikulazio publikoa europarra bezalako gizarte demokratiko batean?". "Jaialdiak hobetu egin al du emakumeen egoera gizarte esloveniarrean?". Arte gertakari batek edozein

dig me out

testuinguru sozialetan generoen arteko harremanetan hobekuntza orokorra ekar lezakeela espero izatea eszeptizismo politikoaren sintoma bat da. Agerian uzten du halaber arteen eta politikaren arteko harremanaren birrebaluazio baten premia.

Arteen eta diskurtso teorikoen funtzioa izan daiteke erregulatze metodoak erakustea bizitza sozial zein banakakoan (hala nola, subjektibotzea genero, klase, talde etniko eta abarren desberdintasunen bidez). Diskurtso horiek zeinu (des)ordenak iradoki ditzakete, eta subertsiorako bideak diseinatu. Pertzepzio ez baztertzailezko uneak sor ditzakete.

Egungo komunitate feministetan pluraltasuna sarri markatu egiten du -neurri batean- queer/LGBTetan nolabaiteko onesppek. Adibidez, Eslovenian eta Balkanetako eskualdean hainbat proiektuk, hala nola Rde e zore (Egunsenti Gorriak) -bertan Emakumeen Hiriak parte hartzen du sare feminista-ekintzaile-queer aske batean (FAQ)- queer/LGBT etiketatzea erabiltzen du. Emakumeen Hiriak ez. Zergatik? "Etiketatzeko politikak" funtzionatzen duelako bai komunikazio kode gisa bai politika identitarioen ezaugarri performatibo gisa.

Artearen artikulazio eta interpretazio soziala jada generoak markatua izaten da maiz; "Etiketatzeko politika" jolastu egiten da gizon-korrante horretan kokatzearekin: atzera eta aurrera dabil marjinaren eta korrante nagusiaren artean. Artean eta proiektu ekintzaileetan buru-kokapenerako eta buru-identifikaziorako etiketatzea erabiltzeak sailkapena, kartografiatzea eta taldekatzea sortzen du, komunikazio transferentzia azkarra eta fenomeno eta nozio deslurraldetuen berehalako ulerpenera.

dig me out

Etiketen eta ikonoen hiperrerabilerak maskarada moduan hedatu egiten du queer praktika. Hala ere, taktika horrek edukiz hustu egiten ditu queer praktikak neurri batean; metodoa zurrundu egiten bada, etiketa -eta harekin batera dena delako praktika- salgai bilakatzen da, "goi kode" baten edo narratiba nagusi baten mendean subjektibotuta.

Horregatik Emakumeen Hiriak -"emakumeen egiletzan" jartzen duen bere insistentziaz aparte- fokuz aldatzen du urtero. Urteroko jaialdiaren gaiak lanabes gisa funtzionatzen du auzi politiko eta etikoak sortzeko. Emakumeen Hiriak ingurumen alorreko bereganatzea, bio-agintea eta antzeko kontuak aztertu ditu 2008an, baina 2009ko XV. Emakumeen Hiria jaialdiak "Hegoalde globala" eta haren arazoak izango ditu aztergai.

Gure gertakariari batzuetan kritikatzeko zaio ez duela lortzen emakume feministen agenda zabala (emakumeen aurkako indarkeria, sexualitatea, amatasuna, etxeko lana, baldintza ekonomikoak eta abar aztertuta) ordezkatzeko. Arazo horiek garrantzitsuak dira, inondik ere, baina generoak markatutako gertakari baten antolatzailea zarenean beti jarri behar duzu zalantzan agentzia. Non sortzen da agentzia? Joera bat al da? Gure harreman-inguruneek (medioak, geopolitika, biopolitika eta abar) sortzen al dute jokatzeko gure ahalmena? Gure prozesu eta diskurtsoak zein neurritan dira iragazkorrak botere harremanei dagokienez? Diskurtso teorikoak ere joeretara emanak dira.

Emakumeen Hiria, 90eko hamarkadaren erdialdean abian jarria, 80ko hamarkadako feminismoarekin lerrokatzen da. Jaialdiak oraindik oraintsuko genero teorien eragina

## dig me out

nabarmena izan eta hirugarren uhineko zenbait kontzeptu gauzatzen dituen bitartean, Emakumeen Hiriak ez du sekula aldarrikatu "emakumeen arte" esentzializatu baten existentzia; nahiago izan dugu "queer (arte) jarrera" aldarrikatu".

Zenbait jarduera behin eta berriz errepikatzen dira: nazioartekotasuna, diziplinartekotasuna, tokiko agendak eta agenda globalak, egoitza desberdinak erabilita eta, batez ere, emakumeen egiletzan zentratzea. Hau bezalako hamalau urteko historia batek etenez jositako jarraitutasun baten irudipena sortzen du; gure errepikatze horren ahalmen kreatibo haren subjektuek sortutako desberdintasunaren kontingentzia datza. Denborazkotasuna eta espaziozkotasuna faktore garrantzitsuak dira. Eta horrek beste galdera multzo batera garamatza: Non gaude orain? Zein unetan bizi gara leku zehatz batean? Zein da gure ezagutza kokatua?

Antolatzaileek, nazioarteko artistek, teorizatzaileek eta ekintzaileek sortzen dute denen artean Emakumeen Hiria jaialdiaren programa eta haren xehetasun guztiak. Espaziozkotasuna erabakigarria da prozesu horretan -arte praktika zabalagoetan gertatzen den bezalaxe-, egoera geopolitiko, biopolitiko eta bio-kapitalista dela medio.

Emakumeen Hiriak 1995az geroztik darama espazio gabeziaren, egoera finantzario kaskarraren eta baldintza eskasen aurka borrokan. Neurri handi batean jaialdia arte sistema nagusien "gain-kodearen" mendean dago, eta exotikotze eta itxaropen arautzaile berbera gertatzen da bertan periferiako komunitate, genero eta artistei dagokienez. Eredu horren barruan lekua dago aginte berreskuratzerako; Emakumeen Hiria munduko hainbat

dig me out

aldetako emakumeen "elkartzea" sendotzen saiatzen da, beren agendak zabal ditzaten.

Emakumeen Hiriak erroreak sortzen dituzten soinuak aurkezten ditu, eta industria kreatiboek oraindik esplotatuegi ez dauden (baina agentzia aldarrikatzeko beldur ez diren) musikari eta artistak. Artista horiek gure online artxiboan aurki daitezke; hainbeste musikari zirrargarri egon dira Emakumeen Hirian, lastima izango bailitzateke pluraltasun hori izen pare batera murriztea. Idatzi iezaguzu artista horietako bat bazara eta oraindik elkar ezagutzen ez badugu.

[www.cityofwomen.org](http://www.cityofwomen.org)

[www.cityofwomengoesweb.org](http://www.cityofwomengoesweb.org)